

ATENEA TA ARANE NESKA EULEA (GREZIA)

Jainkoak izan ziran gizakiai lana egiten irakatsi eutseenak: Margolaritza, argintza, eungintza... baiña gizakiak ez ziran iñoz jainkoen bestean trebeak izatera eltzen. Lana ondo egiten ikasi arren be, gizakiak iñoz ez eban esango jainkoaren bestean trebea zanik.

Izan zan bein baten neska bat ausarta, Atenea baiño eule ohea zala uste ebana. Grezia'ko Kolofon errian bizi zan au eta Arane zan beronen izena.

Arrigarriak ei ziran onek egiten ebazan soingaiñekoak, urre-ariz eta purpuraz eioak. Eundegian lanean asten zanean, zoratuta lez egoten ei ziran bere etxeakoak eta ingurukoak: Atzamarrak bizkor erabilten ebazan, eta margolari bizkorrenak atera eikezan baiño zapi ederragoak ateraten ebazan Arane'k eta zapiak agertzen ebazan giza-emakumeak eta abereak naiz gaiñetikoak bizi-biziak ziran.

Ikusle asko joaten jakozan Arane'ri berak egindako lanak ikustera eta ago betez autortzen eben ez zala izango munduan beste bat berak beste ondo eiote ebanik.

Orregaitik egoan Arane oso arrotuta eta bere artean pen-



tsaten eban Atenea bera baiño be artetsuagoa zala eungintzalan.

Jakin eban Atenea Jainkoseak arrokeri orren barria eta sutan jarri zan. Mundura jatzi zan neska orren arrokeria zigortzera. Baiña asieran laiño batek estalduta agertu zan ezagutu ez egien. Sartu zan euntegira eta Arane'ri bagira-begira gelditu zan. Arrituta ikusi ebazan Arene'ren atzamar bizkorak, ederto erabilten ebezan ariak, iñoz nastatu barik, irudiak margo ederrez apaintzen ebazan. Ezin ukatu iñork, benetan artetsua zala neskea.

Zapia amaitu ebanean, Arane bera lanari begira irribarrez egoala, arrokeria eukala igarri ebanean, Atenea nastatu egin zan bere barruan, eta inguruko laiñoa kenduta agertu jakon neskeari asarre, eta bekaizkeriak eraginda, esan eutson:

– Neska eroa! Zer uste don? Jainkosa beste aizala? Las-ter ikusiko diñagu!

Biak batera asi ziran zapi barri bana eiote. Ez zan sekula olako probarik ikusi, ez zeruan eta ez lurtean!

Arane'k jainkoen arteko ipuin bat eundu eban. Margorik ederren eta bizenagaz, agertzen ziran lagun guztiak bizi-bizi, zapien eunduk barik benetako norkiak zirala zirudien.

Atenea'k Olinpo'ko bizi zoragarria eundu eban bere zapien. Ostarkuaren margo biziak agertzen ziran, eta eguzkiak baiño be argi geiago zabaltzen eban zapi arek.

Arene'ren zapia ederra ta zoragarria zan baiña itsutu egi-ten eban Atenea'ren zapi ikusgarriak bere argitasunagaz.

Amaitu ebezan biak euren lanak eta begiratu eutson Arene'k Atenea'ren zapiari eta begiak eskuakaz estaldu egin bear izan ebazan zapiak agertzen eban argitasun biziagaitik. Eta autortu eutson Jainkoseari bera baiño askoz artetsuagoa zala eta bere aurrean makurtzen zala.

– Orra ba, gazte arro ori! Ausarta izan aiz jaikoekin eure burua bardintzen eta orregaitik zigortu egingo aunat! Beti izango aiz eule trebe eta artetsu, baiña zomorro itxusi biurtuta.

Ori esanaz batera, Ateneak lepoan ikutu eban Arane eta armiarma biurtuta geratu zan. Arrezkero or diardu beti eunak egiten zoko eta bazter guztietan. Orregaitik esaten dautse “arane” greziatarak guk euskaldunak armiarma esaten dautsagun zomorro motzari.

OLAZAR'tar Martin'ek